

Aldez aurreko kontsulta publikoa
Eguneko arreta zerbitzuaren araudia egiteko

ARDURADUNA: HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK

PARTE-HARTZEKO: zerbitzusozialak@hernani.eus edo idatziak bidaliz helbide honetara: Sandiusterri kalea 1, 20120 Hernani.

Epea: 2018ko ekainaren 14tik uztailaren 7 arte.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten arau berriaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handiena duten erakundeek honako hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.1 artikulua aipatzen dituen gaiari konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere aldez aurreko kontsulta publikorako, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak Etxeko laguntza zerbitzuaren araudi berria prestatu aurretik, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikokoak betetzen dituzten pertsona guztiak.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Eguneko Arretako Zerbitzua sartzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela dio:

5. artikuluan: Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

32. artikuluan laguntzen definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.

I. eranskinean, 1.7 fitxan, eguneko arretako zerbitzuak buruzkoan, zerbitzu motak definitzean, horrela agertzen da: zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-

arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

Eguneko arreta zerbitzua egunean zeharreko arreta eta egonaldirako baliabide bat da. Baliabide horrek ohiko bizilekuan egotea ahalbidetzen die eguneroko bizitzan moldatzeko nolabaiteko autonomia pertsonala duten adindunei.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. A) UDAL-ESKUMENEN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EDO LAGUNTZA EKONOMIKOAK Atalean Eguneko arreta definitzerakoari jarraituz:

Zerbitzu hauek pertsonen eskura egunean zehar erabil dezaketen gailu bat jartzen dute pertsonaren eskura. Gailu horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie.

Adinekoak mendekotasun adierazleak dituzten horretan, egoera zaurgarri eta ahuldade egoerak agertzen dira. Hori horrela haietzako harrera guneak eskeintzeko beharrari erantzun nahi zaio.

Zerbitzuaren helburu nagusia da mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero. Konpondu nahi diren arazoak dira:

- Adinekoei harremanak eta gizarte-ekintzak garatzeko marko egokia eskaintzea.
- Adinekoa familiaren eta bere testuinguruan bertakotua mantentzea
- Bere gaitasunen arabera norberaren independentziari ahalik eta gehien eutsi edo/eta ahalik eta gehien berreskuratzea.
- Gaitasun kognitiboaren galera atzeratzea estimulatze teknikak erabiliz
- Talde partaidetza sentimendua landu
- Sozioalizazioa bultzatu elkarren arteko komunikazioa landuz
- Isolamenduak suposa ditzaketen ondorioak ekidin
- Depresio, antsietate sintomak prebenitzea
- Gaurkotatua eta errealitatearekin lotura areagotu
- Aisialdia modu postiboan bizitzea bizi eta indartzea
- Ariketa fisikoa eta osasunaren arteko lotura landu
- Arreta eta memoria sendotzea
- Komunikazioa areagotzea eta iritzia ematea indartzea
- Sormena areagotzea ekintza anitzen bitartez
- Herriko ekintza komunitarioetan eragile aktibo bilakatzea
- Herriko ekintza komunitarioetan parte hartzea
- Adinartekoen artean harremanak areagotzea
- Pertsonak bere ingurunean mantentzen dituzten familiei laguntza soziala eta asistentziala eskaintzea.

B) Onespenaren premia eta egokitasuna.

Zerbitzu berria denez arautu behar da, legediak halaxe eskatzen duelako. Araudiak jasoko du zerbitzua erabiltzeko eskubidea nortzuk duten, parteek zer nolako konpromisoak hartzen dituzten,

finantzaketa nola egingo den, itxaron zerrenda nola kudeatuko den, zerbitzua noiz hasten edo bukatzen den, eta zor daitezkeen hainbat galdera.

Araudi honek, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak kudeatzen dituen adindunentzako zerbitzuek eta eguneko arreta zerbitzua beren jardunean begiratu behar dituzten jarduketa printzipioak eta antolakuntza arauak ezartzen ditu. Araudi honek adindunentzako zerbitzu baliabideek beren jardunean begiratu behar dituzten jarduketa printzipioak eta antolakuntza arauak ezarri behar ditu.

Adineko pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua Hernaniko zerbitzu sozialen sareko baliabidea da. Udalerrian bizi diren pertsona adinduen beharrei erantzun ahal izateko ezarri den sare hori, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den eskumenei buruzko araudiaren arabera, behar horiek eskubide unibertsal bat direla ulerturik.

C) Arauaren helburuak.

Araudiaren xedea da Hernaniko eguneko arreta zerbitzua arautzea. Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Buruntzaldea mailan emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan, beste udalekin hitzartuta edukiko duelako.

D) Izan litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Arautzeko beste modu batzuk posible badira ere, laguntza jadanik araturik dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak arautzen duen 185/2015 Dekretuak, eta egokiena bermaturiko zerbitzu hori garatzea dela irizten zaio.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 31an.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Presidente